

BEREN KONTURAKO NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA

Gutxieneko oinarria (euro hilean)	950,98 €
Gehieneko oinarria (euro hilean)	4.720,50 €
Tasak	%18,75: oinarria hilean 950,98 eta 1.141,17 euro bitartean dagoenean.
	%26,50: hilean 1.141,17 eurotik gorako oinarrian kotizatzen badu, haren gainetik dagoen zenbatekoa.
Borondatezko hobekuntza (ABEa, kontingentzia arruntak)	%3,30
	%2,80, kontingentzia profesionaletatik babesteko sistemara atxikita badago
Lan - istripuei eta gaixotasun profesionalen dagokien tasa	Prima-tarifa (42/2006 Legea, abenduaren 28koa, Estatuko 2007ko Aurrekontu Orokorrena – laugarren xedapen gehigarria-).
BHBa (ez dagozkio laneko istripua eta gaixotasun profesionala)	%1,00
Jarduera etetea	%2,20
Belaunaldiarteko ekitaterako mekanismoa	%0,70

Nekazaritzako ustiategiaren titularren senide jakinen aldeko kuoten hobaria.

1. Nekazaritzako jardueran diharduten pertsonak, baldin eta Besteren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren jasota badaude, Besteren Konturako Nekazaritzako Langileen Sistema Bereziaren bidez, nekazaritzan hastean berrogeita hamar urte edo gutxiago badituzte, nekazaritzako ustiategiaren titularren ezkontideak edo ondorengoak badira, eta araubide horretan alta emanda eta sistema berezi horretan sartuta badaude. Pertsona horiek hobari bat jasotzeko eskubidea izango dute alta eman eta hurrengo bost urteetan; hobari hori sistema berezi horretan aplikagarria den taula orokorreko 1. tartearen gutxieneko kotizazio-oinarrian kontingentzia komunei dagokien kuotaren ehuneko 40koa izango da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko 325. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Artikulu horretan araututako hobaria nekazaritzako ustiategi baten titularren ezkontideari ere aplikatuko zaio, baldin eta artikulu horretan adierazitako baldintzak betetzen badira eta ustiategiaren titular bihurtzen bada, titulartasun partekatuko araubidean, nola eta dagoeneko ez duen hobaria jasotzen, 1. atalean ezarritakoaren arabera; kasu horretan, iraungitzen den arte jasoko du.